**Zizurkil** Huyck Wangner: zortzi hilabetez langileak borrokan 7

TOLOSALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2013ko irailaren 6a. IX. urtea. 2.639. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

# Kontxako Banderaren zati bat eskualdera ekartzen saiatuko dira

Ioana Alijostes, Irati Larrañaga, Jon Lizarralde, Julen Gorostiaga eta Ugaitz Mendizabal arraunlariek euren desioak azaldu dituzte 4-5

## Orendaingo Udalak erronka berriarekin hasiko du hilabetea

Agenda 21 eraberritzeko lehen fasean herritarren herenak baino gehiagok parte hartu du; udalak orendaindarrek egindako lana eskertu nahi izan du 6

### Enrique Abril errebote txapelketa asteburuan hasiko da

Behar Zana taldea ariko da lehian, eta finala Villabonan jokatuko da 2

### Lurpeko garajeetan egindako zortzi lapurreta salatu dituzte Tolosan

Iurre, Larramendi eta Alliri auzoetako garajeetan egin dituzte lapurretak 2



A. IMAZ

**→ Jaiak hasten lehenak, alkizarrak.** Atzo eman zieten jaiei hasiera Alkizan eta Zizurkilen. Alkizan herriko txikienak izan ziren –irudian– protagonistak, eta helduen begiradapean jolasak izan zituzten herriko plazan. Zizurkilen, aldiz, kirola eginez eman diete hasiera. Gaur, ordea, bi herri hauei, Tolosako Bedaio eta Izaskun auzoetakoak eta Elduaingoak eta Lizartzakoak gehituko zaizkie. Festa egin nahi duenak asteburua bete ekitaldi izango du beraz, eskualdean. 6



# Zortzi salaketa izan dira aste honetan Tolosan, lurpeko garajeetako lapurretengatik

Ertzaintzako ikertzaileen arabera, «ustezko egileak talde mugikor eta antolatu bateko kideak» dira

**Itzea Urkizu** Tolosa


Alliri auzoan bezala, Larramendi eta Iurren ere izan dira lapurretak. I. URKIZU

Azken astean zortzi salaketa jaso ditu Tolosako Ertzain etxeak, hirigunean gertaturiko hainbat lapurreta medio; dirudienez, guztiak lur azpiko garajeetan gertatu dira.

Ertzaintzako prentsa bulegoak azaldutakoaren arabera, lapurreta guztiak aste honetan gertatu dira, eta Larramendi auzoko, geltoki inguruko Alliriko nahiz Iurre auzoko lurpeko zenbait garajetan sartu dira egileak.

Garajeetan sartu eta lapurtzeko modua, antza denez, «berdintsua» izan da kasu guztietan: «Garajeko ateak zulagailu edo taladro batekin zulatzen dituzte, sarrailaren tokian hain justu; bestela, sarrailaren ponpatxoa puskatu egiten dute», azaldu du Ertzaintzak. Jarritako salaketen artetik, egileek «kasu gehienetan» balio gutxi duten gauzak lapurtu dituztela azaldu dute.

Horrela, beraz, eta Ertzaintzako ikerketa taldearen arabera, lurpeko garajeetako lapurreten ustezko egileak talde mugikor eta antolatu bateko kide dira: «Hainbat herritan barrena ibiltzen dira, eta herri guztietan lapurreta mota bera egiten dute».

tolosa@hitza.info

# Villabonan izango da Enrique Abril errebote txapelketako finala

**I. Urkizu** Amasa-Villabona

Enrique Abril errebote txapelketa asteburu honetan bertan hasiko da, eta finala Villabonako Errebote plazan izango da.

Aurtengo txapelketa berezia izango da, 50.a baita; hori dela eta, urte horietan guztietan txapeldun izan diren talde guztiak gonbidatu dituzte. Guztiek ezin izan dute parte hartu, baina Baigorriko Zaharrer Segi, Uztaritzeko Kapito Harri eta Donibane Lohitzuneko Luzaz gazte lehiatzeko prest azaldu dira.

Gipuzkoatik, berriz, Zubieta, Oiartzungo Txost eta Villabonako Behar Zana ariko dira txapelketan.

Lehen partida bihar izango da, eta Behar Zanakoak Zubietaren aurka ariko dira. Bi multzotan antolatu eta gero, bakoitzeko lehen biek jokatuko dituzte finalerdiak, eta urriaren 13an, Villabonako Errebote plazan finala izango da.

**Joxean Tolosako finalak, etzi**

Amezketako XXIV. Joxean Tolosa pilota txapelketa iritsi da amaierara, eta etzi izango dira finalak, 17:00etatik aurrera.

Kadeteetan Bakaikoa eta Arandia ariko dira, eta gazteetan Erasun eta Elizalde. Nagusien mailan, azkenik, Artola eta Santxo lehiatuko dira.

www.inmosalbide.com
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

**Aia.** Urdaneta Auzoan. 120m²-ko borda (4 gelako etxebizitza) eta 17.500m²-ko terrenoa. Oso polita. Prezio onean **240.405 euro!**

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegre. 87m². 3 logela, 2 bainugela, terraza (9m²). **282.476€ euro!**

**Zarautz.** Aritzbatalde. 3 logelako, 2 bainugela terraza eta trastelekua. Oso egoera onean. Altua eta eguzkitsua. 75.000.000 pezeta!

**Zarautz.** Alde zaharrean. Logela bateko etxebizitza. **150.253 euro!**

**Zarautz.** Aritzbatalde plazan. 3 logelako etxea (87m²) + trastelekua (11m²) + garaje itxia (20m²). 61.562.820 pezeta. Oso prezio onean.

**Zarautz.** Mitxelena Kalea. 3 logela, 2 bainugela, terraza eta trastelekua. Igogailua eta gasa. **252.425€ euro!**

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

# Iraileko filmak ikusteko bono berezia eskainiko du Tolosako Udalak

Igande honetan hasiko da iraileko egitaraua, eta bonoen salmenta ere orduan hasiko da, zazpi euroren truke

**I. Urkizu** Tolosa

Abuztuko geldialdiaren ondoren, Tolosako Leidor aretoko zine egitaraua abian jarriko da igande honetan, berriro. Uda hasieran eskainitako bonorik erosi ez zutenek, horrela, iraileko zine saioetarako bereziki eskainiko duten bonoa eskuratu ahal izango dute. Zazpi euroko prezioa izango du, eta arratsaldeko nahiz gaueko saioetarako balioko du.

**Bost film zazpi euroren truke**

Igande honetan 19:30ean izango da ikasturteko lehen saioa, eta *Gerra Mundial Z* filma proiektatuko dute; astelehenean, 20:30ean, pelikula bera ikusi ahal izango da. Izen bereko eleberriaren egokitzapen honetan, zientzia fikziozko istorioaz gozatu ahal izango dute ikusleek.

Ostegunean, berriz, 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak, jatorrizko bertsioan, *Vertigo* filmaz gozatzeko; Alfred Hitchcock-en lana zaharberritu egin dute.

Datorren igandean, irailaren 15ean, *La mejor oferta* 19:30ean eskainiko dute, eta film bera hilaren 16an ikusgai izango da, 20:30ean. Arrakastadun maitasun eta suspentse filma da.

Datorren asteko zine forumeko saioan, jatorrizko bertsioan alegia, *The trip* izeneko sukaldaritzaren inguruko komedia bat izango da ikusgai, 19:15ean eta 21:45ean.

Azkenik, iraileko egitaraua *Hijos de la medianoche*rekin biribilduko dute Leidor aretoan; Salman Rushdie-ren eleberrian oinarrituriko drama da. Lehen saioa irailaren 22an ikusi ahal izango da, 19:30ean; bigarrena, hilaren 23an izango da, 20:30ean.

## Laburrak

### Ibarra KEren txirrindulari probarako laguntza

**IBARRA ›** Ibarra KE elkarteak urteroko txirrindulari proba antolatu du irailaren 15erako, eta arduradunek bidegurutzeak zaintzeko laguntza behar dutela azaldu dute. Horregatik, bazkideei izena ematea eskatu diete, proba baino lehen; horrela, zenbat jende dagoen jakingo dute. Elkartean izen emate orria jarri dute, eta NAN zenbakia eman beharko da. Proba 10:00etan hasten den arren, 08:45ean bertan egon beharko da.

### Tolosa Kantari Zarautzera, hilaren 14an

**TOLOSA ›** Tolosa Kantarik egun pasa egingo du irailaren 14an, Zarautzeko kantu jirakoekin batera aritzeko. Etxetik eramango dute bazkaria, eta autobusa eta bertako gosaria 20 euro ordaindu beharko da. Txartelak Tolosako Xirimiri txokolategian daude eskuragarri.

### 'Badira Bagara' aurkeztuko dute bihar

**TOLOSA ›** Bihar Tuterako Argia ikastolaren inguruko Badira Bagara dokumentala aurkeztuko dute Basque Culinary Center-en, 19:30ean. Mondragon Unibertsitateko laguntzari esker egin dute lana, hiru ikasleren amaierako proiektua izan baita. Tartean, Olatz Artola tolosarra aritu da.

### AEBetako hegoaldeko sukaldaritza ikastaroa

**TOLOSA ›** Tolosako Sukaltalka tailerrean ikastaroa izango da asteartean, 18:30etik 20:30era. *Soul Food: AEB hegoaldeko benetako sukaldaritza* izenburupean, bertako indigenen eta afroamerikarren eragina duen janaria prestatzen ikasiko dute, Georgiako sukaldari baten eskutik. Ikastaroa 35 euro ordaindu beharko da, eta izena eman daiteke oraindik.

## Iragarki laburrak

**LANA**

**Etxeko lanak.** Goizetan, 08:00etatik 14:00etara etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, horrelako jardunetan esperientzia handia duen emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. Interesa duen edonork, dei dezala honako bi telefono zenbakietako batera: 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Publierreportajea** → Aitzol Udal Euskaltegia

Euskara ikasteko oztopo nagusietako bat ordutegia izan ohi da, euskaltegikoak familiarenarekin edo lanarenarekin bat egiten duenean. Aitzol Udal Euskaltegiak badu horretarako erremedioa: autoikaskuntza.

# Bakoitzak bere ordutegia



Aitzol udal euskaltegian gela bat egokituta dute autoikaskuntzako ikasleek euren lanak burutzeko. HITZA



Ikasle bakoitzak bere tiradera izaten du lanak utzi eta jasotzeko. HITZA



Hamabostean behin tutoretza saioa izaten du ikasleak. HITZA

Aurki ekingo diote ikasturte berriari Tolosako Aitzol Udal Euskaltegian, eta dagoeneko zabalik dute matrikula egiteko epea. Euskararen ikaskuntzan aurrera egin nahi baina ikasgelen ordutegiak ondo egokitzen ez zaizkionari beste aukera bat ematen dio euskaltegiak: autoikaskuntza.

Amando Hernandez euskaltegiko zuzendariak azaldu duenez, «2006tik dugu martxan euskara ikasteko aukera hau». Tutoretza hamabost egunean behin egiten da, ordu erdikoa. «Etxean egindako lana, emandako unitatea, Internet bidez egindako ariketak, zalantzak… ikusten dira, eta hurrengo unitateari buruzko informazioa banatzen zaie».

Ikasle bakoitzak bere tiradera du. Bertan uzten ditu egindako lanak eta irakasleak ariketa horiek zuzendu ondoren tiraderara itzultzen dizkio. Ikasturtea unitateen bidez lantzen dute, horretarako euskaltegian bertan sortutako koadernoak erabiliz. «Normalean gai baten inguruan sortzen ditugu, eta lanketa egin ondoren, bukaeran egiteko bat jartzen da», azaldu du Hernandezek. «Ariketa batzuk oso mekanikoak dira, beste batzuk sailkatzekoak, alderdi gramatikala ere hor dago…». Koadernoarekin batera erantzunen orria ematen zaie, ikasle bakoitzak autozuzenketa egiteko. «Gero tutorearekin zalantzak argitzen dituzte. Esaterako, erantzunetako bat zergatik dagoen oker», zehaztu du Hernandezek.

Koadernoarekin batera entzungairen bat izaten dute egiteko. Diskoak ikasturtearen hasieran ematen zaizkie ikasleei. Bestalde, HABEk sortutako Boga aplikazioa erabiltzen dute ikasleek, hainbat ariketa egiteko.

Aurreko guztiak norberak egiten ditu, etxean edo nahi badu euskaltegian bertan horretarako egokituta duten gunean. Astean behin mintza saioa izaten dute, eta horretarako euskaltegian elkartzen dira. Gai baten edo testu baten inguruan, elkartzen direnak hitz egitea da helburua. Hernandezek gaineratu duenez, autoikaskuntzak mintzamenean du ahulezia nagusiena: «Hitz egiteko bi pertsona behar dira. Tutoretza mintza saio gisa onartu daiteke, baina hori ez da helburua. Mintzamena praktikatzeko astean behin egiten diren saioak erabiltzen dira».

Modalitate honetan euskaltegian curriculum berriari egokitzen joan dira, Hernandezek adierazi duenez: «Ez da hainbeste ikasleak baldintza eta subjuntiboa ikastea, edo hiztegi bereziren bat, baizik eta eginkizuna markatu eta eginbeharrekoa sortzen joatea. Erabilerari lotutakoa izan behar du».

**Autodiziplina, beharrezkoa**

Idoia Zabaleta, Maite Caminos eta Nerea Yurrebaso dira Aitzol Udal Euskaltegian autoikaskuntza erabili duten hiru ikasle. Zabaletak hiru urte egin ditu euskara ikasten modu horretara. Beste garai batzuetan ere ikasi izan du euskaltegian. Orduan talde baten barruan egon zen. «Orain hiru urte hasi nintzen berriro. Nire familia euskalduna da eta nire ingurua euskalduna da, baina ni ez naiz euskaraz nahi bezala moldatzen. Bi alaba ditut, eta euskara berriro ikasten hasi nintzenean, zaharrenak bederatzi urte zituen eta berarekin euskaraz hitz egiteko zailtasunak nituen», azaldu du Zabaletak.

Autoikaskuntzaren hautua egin zuen, berari ondo zegokion unean ikasteko. «Bestela, ordutegi bat dago eta hori alaben ordutegiarekin moldatzea zaila zen», esan du Zabaletak, eta gaineratu: «Autoikaskuntzak ikaslearen aldetik asko eskatzen du. Zuk ez baldin baduzu zure ahalegin guztia jartzen, mantso joaten zara. Nik pentsatzen nuen aldrebes izango zela, baina zu bakarrik egotean, esfortzu handiagoa eskatzen du». Bestalde, euskaltegiak modalitate horretan duen eskaintza gustatzen zaiola dio, baina emaitza norberaren esfortzuaren araberakoa izaten dela nabarmendu du.

Zabaleta aurtengo ikasturtean bigarrengo perfila ateratzeko mailan ariko da, baina oraindik ez du guztiz erabaki autoikaskuntza ala ikasgela aukeratuko duen.

Maite Caminosek urtebete egin du autoikaskuntzarekin. «Bi haur ditut, beste ikasketa batzuk egiten ari naiz, eta ez daukat denbora gehiegirik. Horregatik, autoikaskuntza nahiko modu erosoa da ikasteko», esan du Caminosek. Ikasleek irakaslearengana jo dezakete zalantzaren bat dutenean, eta hori asko baloratzen du Caminosek: «Bai Internet bidez, edo baita telefonoz ere harremanetan jarri zaitezke. Ez zara euskaltegira egunero etortzen ari, baina sentsazioa da denbora guztian harremanetan zaudela irakaslearekin».

Caminos beste ikasketak ere Internet bidez egiten ari da, eta, beraz, badaki autoikaskuntzak zer lan dakrren: «Autodiziplinatua izan behar duzu, eta lana egin behar duzu, bestela ez du ezertarako balio. Nik egunero ordubete inguru egiten nuen». Hirugarren perfila, hau da, EGA titulua ateratzeko aritu da ikasten azken ikasturtean.

Nerea Yurrebasok ere denbora faltagatik aukeratu zuen autoikaskuntza egitea. «Probatzea pentsatu nuen, eta egia esan esperientzia ona izan zen», dio, eta bere alde onak eta txarrak dituela nabarmendu du: «Orain denbora pixka bat gehiago dut, eta nahiago dut harreman presentziala izatea; irakaslearekin eta beste ikasleekin harremana izatea garrantzitsua da, batez ere mintzamena lantzeko».

Aurreko bien moduan, Yurrebasok ere lana egin behar dela nabarmendu du: «Online formakuntza beti horrela da, autodiziplina gehiago behar duzu. Bere alde ona ere badu, zeure buruari buruz ikasteko ere balio duelako». Bigarren perfila atera berri du, eta hirugarrena atera nahi du. «Udaletxe batean lan egiten dut eta horregatik behar dut perfila, baina niretzat garrantzitsuena euskara ikastea eta hitz egitea da. Nire harreman pertsonal gehienak euskaraz dira, eta horregatik garrantzitsua da niretzat».

Euskara ikasi nahi duenak, eta euskaltegiko ordutegira moldatzeko zailtasunak dituenak, beraz, ez du aitzakiarik matrikula egiteko. Aitzol Udal Euskaltegian irailaren 13a arte dago zabalik horretarako epea. Autoikaskuntzan ere aurrerago matrikula egiteko aukera badago, baina euskaltegitik gomendatzen dute lehenbailehen egitea, diru laguntza ikasle kopuru jakin batentzako baitago.

Kontxako Banderako bigarren estropada jokatuko da igandean Donostian. Arraun munduko lehiarik gogor eta jarraituena den honetan, eskualdeko bost arraunlarik hartuko dute parte. Euren inpresioak kontatu dituzte datorren igandera begira.

# Altxorraren bila Donostiako uretan

**Mikel Iraola**

Tolosan eman zituzten lehen arraun kolpeak, Oria ibaian. Ibilian-ibilian, itsaso zabalera iritsi dira, Donostiara. Ez da makala lortutakoa, ez eta lortzeko daukaten guztia. Izan ere, bertako uretan gordeta da arraun munduko miresgarri horretako altxorrik preziatuena: Kontxako Bandera.

Ioana Alijostes, Irati Larrañaga eta Julen Gorostiaga tolosarrak, Ugaitz Mendizabal irurarrak eta Jon Lizarralde anoetarrak altxor hori lortzeko lehiaren bigarren kapitulua biziko dute igande honetan. Batzuk zuzen doaz, beste batzuk, ez horrenbeste. Baina bertan izatea jada sari bat omen da.

Emakumezkoetan Zumaiak ez du iparra galdu urte osoan zehar. Altxorraren mapa eskuetan, 11 segundoko errenta du bere alde. *Telmo Deun* ontziko tostetatik mugiezinak dira Alijostes eta Larrañaga. Gertu dabiltza, oso gertu.

Gizonezkoetan, ordea, denetarik da. Lizarralderen Hondarribia da hobetoen, nahiz eta aurretik piraten ontzia duen, Urdaibairena. Gogorrak dira oso, baina ez garaiezinak. Hiru segundoko aldea besterik ez dute. Mendizabalen San Pedro, zertxobait atzeratuago dago, 16 segundora, baina ekaitza pasa ondoren, fin dira. Gorostiagaren Donostiarrak badaki ez duela altxorrik, baina bila dira.

---

**Jon Lizarralde** • Hondarribiako arraunlaria

## «Igandean irabaztera aterako gara»



Jon Lizarraldek (Anoeta, 1982) lehen denboraldia du Hondarribiaren *Ama Guadalupekoa* ontzian, eta Kontxako Bandera irabazteko aukera asko ditu. Bigarren postuan da, Urdaibairengandik hiru segundora. «Irabaziko dugu», dio.

**Nola joan da debuta Hondarribian?**
Pasa den urteko emaitzak berdindu edo hobetzea zen helburua, eta Kontxan estropada ona egin nahi genuen. Aurredenboraldia atzeratu egin genuen horretarako, fresko iristeko. Horregatik hasiera ez zen ona izan, baina gure benetako maila zein den erakutsi dugu eta orain oso ondo gaude.

**Hasiera hartan emaitza on bat lortzeko beharraren presioa izan zenuten?**
Zertxobait bai. Ez genuen zorterik onena izan kaleekin eta emaitzak hor daude. Fisikoki ondo egon arren psikologikoki emaitza hoiei erreakzionatzea kosta zitzaigun.

**Baina bi bandera eskuratu dituzue...**
Bai, eta lehen lau postuen artean dexentetan izan gara, beraz ondo.

**Kontxan zaudete, baina osteguneko sailkatze proba uste baino gehiago konplikatu zen, ezta?**
Ziabogan oso erreferentzia onak genituen, eta zertxobait erlaxatu ginen. Irla parean mugan geundela esan eta estutu egin genuen.

**Igandeko estropadarekin gustura?**
Emaitza oso ona da, hamar urtetan bigarren iganderako Hondarribiak izan duen alderik txikiena.

**Laugarren kaleak hainbesterako eragina izan al zuen?**
Olatuak indar gehiago zuen. Bigarren kalekoek metro gehiago egin behar izan zituzten, eta hainbeste berdintasun dagoenean galdutako segundo bat errekuperatzea zaila da. Hori bai, olatu horiek ere aprobetxatzen jakin egin behar da, eta guk asmatu genuen.

**Uste al zenuten horrela iritsiko zinatela bigarren igandera?**
Lehen esan dizudan modun aurredenboraldiko prestaketa Kontxara begira antolatu zen. Pasa den urtean fisikoki ondo prestatu eta hasiera gogorra izan zen, aurten berriz, hori hipotekatu da bukaerara fresko iristeko. Baina, estropada baino lehen, firmatuko nukeen gaur hiru segundora izatea.

**Gainera Hondarribiako egun handia da. Horrek motibatzen al zaituzte?**
Festa girotik pixka bat aldendu egin behar genuela esan ziguten. Baina, bai, polita izango litzateke irabaztea. 1968. urtean suertatu da bakarrik. Zergatik ez berriro?

**Nork irabaziko du Kontxa?**
Gu %100a eman eta irabaztera irtengo gara, beraz, Hondarribiak. Emakumezkoetan Zumaiak.

---

**Julen Gorostiaga** • Donostiarrako arraunlaria

## «Sabelean kilimak sentitzen dira»



Kontxan Donostiako traineruarekin aritzea zerbait «berezia» dela dio Julen Gorostiagak (Tolosa, 1993). Aurten debuta egin du lehen taldearekin eta pozik da.

**Zer moduzkoa izan da lehen urtea?**
Aurten traineru bakarra atera du Donostiarrak jende faltagatik. Hamar baja izan ziren, eta gazte asko sartu. Bagenekien mailaz jaitsiko genuela zertxobait. Helburua bigarren txandan egotea izan da eta lortu dugu, beraz, pozik. Pertsonalki zazpi estropada jokatu ditut, eta orain Kontxa. Ezin hobeto.

**Saltoa nabaritu duzu?**
Bai. Bigarren taldean arraunlari gisa haztea zen helburua, presiorik gabe. Orain bete beharreko helburuak zeuden. Entrenamenduak ere gogorragoak izan dira.

**Kontxan lehen aldiz. Nolakoa izan da?**
Izugarria da. Ligan guraso, lagun eta neskalagunak izaten dira ikusten. Orain jende asko dago, eta sabelean kilimak sentitzen dira.

**Nola bizi da Kontxa Donostiarran?**
Ilusio handiz, talde handienekin egoteko dugun aukera bakarra da.

**Donostiarraz gutxi hitz egiten da. 'Ahate itsusia' zaretela dirudi...**
Beti esan izan da zortzigarren postu hori okupatu egiten dugula. Prentsak lehen zazpi sailkatuei ematen die ahotsa, eta guri, etxekoei, animoak justu-justu.

**Zer nolako balorazioa egiten duzu pasa den igandeko estropadaz?**
Oso positiboa. Pixkanaka hobetuz joan gara, eta azken emaitzek konfiantza eman digute. Hondarribiarengandik minututik azpira eta Tiranengandik 25 segundora egotea ezin hobea da guretzat, kontuan hartuta gainera, debuta egin dugun aurraunlari asko gaudela.

**Arrauna jarraitzen duen batek pentsatuko du... azkena izan eta pozik? Zeure burua beti azkena ikusita aurrera egiteak ba al du lanketaren bat?**
TKE ligako denborekin alderatzen ditugu, eta aurtengoa oso ona izan dela ikusi dugu.

**Nork irabaziko du Kontxa?**
Hondarribiak eta Zumaiak.

Saldías Miguel
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
www.saldias-miguel.com
% 60 arteko aurrezkia
• Autoak
• Motoak
• Furgonetak
• Kamioiak
• Etxebizitzak
• Komertzioak
• Komunitateak
• Istripuak
• E.P.S.V
• Osasuna
• Inbertsioak
• etb.
Zazpiturrieta, 14 • 20200 Beasain • Tel.: 943 085 600
San Juan kalea, 6 • 20270 ANOETA • Tel.: 943 698 004
Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa
Tel. 943 651 189





**Ioana Alijostes eta Irati Larrañaga** • Zumaiako arraunlariak

## «11 segundo errenta ona da baina aurkaria ez da gutxietsi behar»



Etxeko trainerua, Getaria-Tolosa, desagertu eta Zumaiarako bidea hartu zuten pasa den urteko uda bukatu bezain laster Ioana Alijostesek (Tolosa, 1988) eta Irati Larrañagak (Tolosa, 1992). Kontxako Bandera irabazteko zorian izan ziren, baina ez zuten lortu. Oraingoan, badirudi, lortuko dutela.

**Nolatan joan zineten Zumaiara?**
**I.L.:** Beti hitz egin izan da beste taldeekin ea hurrengo urterako zein asmo dagoen. Urteak lehenago Zumaiatik dei bat jaso genuen, eta aukerak mahai gainean jarri eta baloratu ondoren, aukera hoberena zela ikusi genuen pertsonalki, eta kirol arloari begira ere bai. Goraka zetorren taldea zen, eta gainera ezagunak genituen bertan.

**Nola joan da urtea?**
**I.A.:** Oso ondo. Gipuzkoako liga eta Euskotren Liga irabazi dugu. Bi estropadak izan ezin, guztiak irabazi ditugu. Kontxan ez dakigu zer gertatuko den, baina lortu ala ez, balantzea oso positiboa da. Eta lortzen badugu, denboraldiari ginga jarriko genioke.

**Aurreko urteetan aurkari gogorra izan duzue aurrean, Rianxeira. Aurten, ordea, ez. Errazagoa izan da?**
**I.A.:** Ez nuke hori esango. Egia da bi talde handi desagertu direla, baina jarraitu dutenen maila asko igo da. Denbora tarteetan nabaritu da, geroz eta tarte gutxiago dago.
**I.L.:** Faboritoak ginen, baina akatsen bat izan dugunean aurkariak hor gertu izan ditugu. Horrek erakusten du beti ondo egin behar direla gauzak eta aurkaria inoiz ez dela gutxietsi behar.
**I.A.:** Traineruaren barnean, konfiantza handia daukagu gugan. Lasai gaude, baina erlaxatu gabe.
**I.L.:** Urtetako esperientzia puntu bat da gure alde, izan ere, bagenekien lehenago edo beranduago iritsiko zela zaplazteko bat jasotzeko unea. Bi egunetan irabazi gintuzten baina buelta eman genion.

**Ia beti irabaztera ohituta izan da, nola mantendu duzue irabazten jarraitzeko gosea?**
**I.A.:** Egia da astebururo irabazten zaudenean, taldea erlaxatu edo blokeatzeko arriskua dagoela. Baina ondo eraman dugu, tentsioa mantendu dugu. Ez dakit nola baina lortu dugu. Entrenatzailea ere hor izan dugu hori gogoraraziz.

**Kontxa irabaztea hasieratik izan duzue helburutzat?**
**I.L.:** Denen helburua da hori, denboraldiko emaitzen gainetik.

**Baina balantza batean Kontxa eta Liga jarriz gero, zein da zuen aukera?**
**I.L.:** (Barreak). Une honetan, Kontxa esango nizuke. Besteren batean ez dakit.
**I.A.:** Egia da baita ligan gaizki ibili denak, Kontxan ez duela ezusteko handirik emango. Denboraldi guztiaren isla da Kontxa.

**Beraz, denboraldia eta igandekoa ikusita, bandera Zumaiarantz abiatu dela esan daiteke?**
**I.A.:** Makila agian bai. Errenta polita da, segurtasuna ematen du, baina estropada daukagu jokatzeko eta aurkaria ez da gutxietsi behar.
**I.L.:** Altxor handia daukagu, baina ez dugu konfiatu behar. Ez dugu sorpresarik nahi. Gainera, plus bat daukagu, izan ere, irabaziz gero, egiten dugun lehen euskaldunak izango baikara.

**Etxeko traineruarekin irabazi ez izanaren arantza kentzea suposatuko luke, ala betirako geratuko da?**
**I.A.:** Pena da hasi zaren eta urteak alboan entrenatzen izan dituzun horiekin irabazi ez izana, baina kirolari bezala irabaziz gero, arantza kenduko dugu seguru.
**I.L.:** Une horretan berdin du elastikoak. Pozik zaude. Tolosarekin irabazi ez izana pena da bai, herriaren izena daramazulako eta herriarentzat polita izango litzatekeelako. Ez genuen lortu, baina hori jada pasa da.

**Ospakizunik irabaziz gero?**
**I.A.:** Lehenengo bazkaria dugu, eta ondoren harrera dute prestatuta herrian. Irabazi edo galdu, berdin ospatuko dugu. Urte ona izan da.

**Nork irabaziko du Kontxa?**
**I.A./I.L.:** Zumaiak eta Urdaibaik.

---

**Ugaitz Mendizabal** • San Pedroko patroia

## «Gure helburua txanda irabaztea da baina ez dugu bandera botako»



Ugaitz Mendizabalek (Irura, 1993) bigarren aldiz jokatu du Kontxako Bandera: pasa den urtean Astillerorekin, eta aurten San Pedrorekin. Ezberdinak izan omen dira.

**Nola joan zaizu lehen urtea Pasaian?**
Fontan uztekotan zebilen, eta banekien bera ordezkatzea ez zela erraza izango. Ligan emaitzak hobetzea zen helburua, eta ez zaigu ondo irten. Baina Kontxan bai ala bai sartzeko esan ziguten, eta lortu dugu, beraz, ezin kexatu.

**Parekotasun handia izan da aurten San Miguel Ligan, ezta?**
Ez bakarrik Ligan, Kontxan ere ikusi da. Segundo gutxiren baitan traineru asko daude.

**Parekotasun horretan, zertxobait falta izan zaio San Pedrori?**
Kontuan hartu behar da bukaeraraino ondo iristeko gauza batzuk kendu edo aldatu egin behar izaten direla. Kontxan sartu nahi genuen, agian gauzak ez dira nahi bezala irten, baina aldaketak ikusita beste irakurketa bat egin daiteke. Gure irakurketa da bukaerara ondo iritsi garela eta hori erakusten ari garela.

**Nahiz eta emaitza horiek nahi baino okerragoak izan, Kontxarako zentratu zarete. Nola prestatu duzue?**
Pare bat aste lehenago kontzientziatzen hasiak ginen: entrenamenduak, haizea eta olatuen iragarpenak begiratu... Animoak altxa genituen, liga gogorra izan da, baina psikologikoki ondo prestatu eta ondo kontzentratu gara.

**Hiru urte Kontxatik kanpo izan ondoren, presiorik sentitu al duzue?**
Etxeko jendeak gehienbat. Kanpokook ez dugu hainbeste nabaritzen. Baina zorionez ondo irten da.

**Barruan zinetela konturatzean nola erreakzionatu zuen tripulazioak? Nola bizi izan zenuen ontzitik?**
Niri irratitik erreferentziak ematen ari ziren. Ondo gindoazela esan zidaten ziabogaren parean, baina lanean jarraitu behar genuela. Barruan geundela esan nienean, entrenatzailea eta etxeko arraunlari batzuk negarrez hasi ziren.

**Presioa gainetik kentzearen ondorio?**
Bai, etxekoek beste era batera bizitzen dute, eta lasaitasun handia hartu zuten. Besteak pozez.

**Bigarren Kontxa duzu hau. Astillerorekin izan zinen, zalerik gabe. San Pedrok ordea ia herri osoa darama. Nola bizi izan duzu aldaketa hau?**
Astillero, kanpotik datorrenez, badirudi aparte gaudela. San Pedrorena handia da, inoiz ez zaituzte bakarrik uzten, herri oso bat dago atzetik. Emozionantea da irteten zaren unean.

**Ia sorpresa eman zenuten Kaikuri ohorezko txandako postua kenduz...**
Pena izan zen. Bagenekien barrurantz irabaztea zaila izango zela. Eutsi genien, baina gero ez genuen asmatu olatuekin eta atzeraka joan ginen.

**Zein da iganderako helburua?**
Lan ona egin, eta txanda irabaztea. Aurkari onak dauzkagu, lortuz gero, seinale ona izango da.

**Itsasoari begira... bandera alboratzen duzue?**
Metro eta gutxiko olatuak espero dira, eta haizeak gora egingo du. Nahiko nuke aldaketa bat, baina hori ez dago gure esku.

**Nork irabaziko du Kontxa?**
Zumaiak, eta eguraldia aldatzen bada...



# Orendaindarren %37k lanarekin erantzun diote udalak luzatutako erronkari

Agenda 21 eraberritzeko bigarren fasea eta bigarren erronka hilabete amaieran jarriko dute martxan

**Asier Imaz** Orendain



Orendain herrian etorkizuna lantzen ari dira herritarrak. ENERITZ MAIZ

Orendaingo Udalak herritarrei eskerrak eman dizkie azken hilabeteetan egin duten lanagatik, eta erakutsitako konpromisoagatik. Gorka Egia alkatearen esanetan, «erronka» betetzea lortu dute. Erronka hori, herritarren parte hartzea bultzatzea zen, eta jasotako erantzunarekin arro agertu da Egia: «Herritarren herenak baina gehiagok hartu du parte Agenda 21 eraberritzeko prozesuaren lehen fasean».

Agenda 21 Orendaingo Udalarentzat tresna oso garrantzitsua eta praktikoa da. Bertan, udal ordezkariek herrian zer egin behar duten agertzen da, eta udalaren helburua, bideorri hori herritarren artean osatzea zen; Orendaindarrei deialdia egin zien laguntza eskatuz, eta Egiaren esanetan, herritarren %37k lanarekin erantzun dute: «Seizazpi laguneko zazpi lantalde osatu ditugu. Guztira 54 herritarrek parte hartu dute, hau da, orendaindarren %37k. Guztira 91 ekintza proposamen atera dira lantalde horietatik. Horrez gain, parte hartze honi esker, herriko gazte batentzat lanpostu bat sortzea lortu dugu. Guzti horregatik, udalak herritarrei eskerrak eman nahi dizkie».

Herriari egokitutako 91 ekintza proposamen horiek iragan igandean aztertu zituzten herri batzar batean, banaka-banaka. Galbahea pasa ondoren, galdetegi bat osatuko dute, eta irailaren amaieran, etxe guztietan banatuko dute galdetegia. Hau, Agenda 21 eraberritzeko bigarren fasea izango da, eta Orendaingo alkatearen esanetan, helburua herritarren %90ak parte hartzea da. Hona hemen beraz, udalak herritarrei luzatu dien bigarren erronka.

**Agenda 21 zertarako?**

Aurten, urte hasieran, Orendaingo Udalak bere burua arazo baten aurrean ikusi zuen: herrian egin beharreko lan estrategikoen %80a egina zegoen. 2013an, gainera, udal ordezkariek %90era iristea aurreikusten zuten. Egin beharreko lan estrategiko horien zerrenda da Agenda 21. Gorka Egiaren esanetan, ez da ezertarako balio ez duen kontzeptu bat Agenda 21: «Udal honentzat oso tresna baliogarria da, gure funtzionamendua bertan oinarritzen baita. Guretzat benetan beharrezkoa dugun lanabes bat da Agenda 21; ez da itxurakeria».

Aurreko udalak osatu zituen Agenda 21eko ekintza proposamenak, eta Bilduko hautetsiak udalera iritsi zirenean, Egiaren esanetan, ekintza proposamen horien %40a egina zegoen. Legegintzaldi honetan, jadanik, %40tik %80ra igaro dira, eta horren aurrean, lanean jarraitzeko Agenda 21 eraberritu beharrean aurkitu zirela dio alkateak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz Aztiker enpresarekin hasi ziren lanean. Eraberritzea aurrera eramateko, bi fase diseinatu zituzten, eta lehenengoa, herrian lantaldeak osatzea izan da, proposamenak egiteko.

Lehenik eta behin, orendaindarrei zein lantaldetan parte hartu nahi duten galdetu zitzaien, bakoitzak bere alorra erabakitze aldera: hirigintza, udal funtzionamendua, ingurugiroa... Lantaldeak osatu ondoren, lehenengo bileran informazioa banatu zen. Egiaren esanetan, orain arte herrian zer egin den eta gai bakoitzaren inguruan Orendain nola dagoen informatu zen lehen bilera horretan.

Ondoren, informazioa izanda formatzea tokatzen zen. Horretarako adibide zehatzak aztertu zituzten. Udal funtzionamenduko lantaldean adibidez, Oñatiko eredua aztertu zuten; lehen sektoreko lantaldea, aldiz, Orduñara joan zen, bertako baserritarren eredua ezagutzera.

Hirugarren eta azken bileran, herritarrek proposamenak egin zituzten; zazpi lantaldetan egindakoak batuta, guztira 91.

Behin lehen fasea amaituta, bigarrena jarriko dute martxan hilabete bukaeran, hau da, herritar guztien artean galdetegi bat banatuko dute, lantaldeetatik atera eta galbahea pasa duten proposamenekin.

# Haur jolasek eman diete lau eguneko jaiei hasiera Alkizan

Zizurkilen, festen hasieran, VI. Kros Mistoa lehiatu da; gaur beste hiru herritan hasiko dira jaiak

**A. Imaz**

Alkizan eta Zizurkilen atzo hasi zituzten herriko jaiak. Haurrak izan ziren protagonista Alkizan. Alde batetik, arratsaldean zehar jolasean ibili zirelako, eta bestetik, ikuskizun paregabeaz gozatzeko aukera izan zutelako ondoren. Hegazti harrapariek erakustaldia eskaini zuten jaien lehen egunean, Gipuzkoako federazioaren eskutik. Hegaztien ondoren, iluntzean, ugaztun harrapakarien txanda izan zen. Mahaiaren bueltan eserita, herri afaria egin zuten alkizarrek, erromeriaren aurretik. Jaiak igandean amaituko dira Alkizan.

Zizurkilen atzo hasi ziren festak, eta astelehenera bitarte, hamaika ekitaldi prestatu dituzte. Lehen eguna, VI. Kros mistoarekin hasi zen, eta gaur, Gazte Eguna ospatuko dute. Goizean eta arratsaldean haur eta gazteentzat jolasak egongo dira, eta iluntzean, Herrira Gaua egongo da. 22:30etik aurrera, The Bobby's, Arkada Social, Willis Drummond eta Makulu Ken taldeek kontzertuak eskainiko dituzte.

**Tolosa, Lizartza eta Elduain**

Alkizarekin eta Zizurkilekin batera, asteburuan beste hainbat lekutan jaiak ospatuko dituzte. Tolosako Izaskun eta Bedaio auzoak horren adibide dira, baita Lizartza eta Elduain ere. Herri eta auzo hauetan hiru eguneko egitarauak antolatu dituzte, eta non zer jakin nahi duenak, *tolosaldea.hitza.info* webgunean dauka herri hauetako jaietako egitaraua osoa.


Alkizako Jaien lehen egunean haurrak izan ziren protagonista. A. IMAZ

## → Laburrak

### Siloko plastiko bilketa zerbitzua hilaren 19an

**ABALTZISKETA ›** Abaltzisketako Udalaren webgunean agertzen denez, siloko plastiko bilketa zerbitzua irailaren 19an izango da, herriko ohiko lekuetan.

### Aranalderen euroagindua salatzeko hitzordua, gaur

**IBARRA ›** Jokin Aranalderen aurkako euroagindua salatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte Ibarran. Gaur, ostirala, 19:30etatik aurrera, elkartasun gunea jarriko dute plazan, eguraldi txarrarekin, Emeterio Arrese parkean. Afari-merienda egongo da bertan. Saiheskia egongo den arren, janaria etxetik eraman daiteke.



Zortzi hilabete iraun duen borroka iritsi da bukaerara Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko beharginentzat; «triste» sentitzen dira enpresak ateak itxi dituelako, baina, pozik daude «borrokak emaitza eman duelako».

# Gizartearen norabidea islatzen duten aferak



Huyck Wangner-eko langileak enpresaren atarian. I.T.

**Iñigo Terradillos** Zizurkil

Duela zortzi hilabete izan zuten Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko beharginek enpresako zuzendaritzak Zizurkilgo lantegia ixteko zuen asmoaren berri. Etenik gabeko zortzi hilabete izan dira eurentzat, enpresa ez ixteko ahaleginean hamaika ate ikutu eta protesta burutu baitituzte. Handiaren helburuak, baina, izan dira beste behin aurrera egin dutenak. Ondorioz, Zizurkilgo lantegiak behin betiko ateak itxi ditu eta langileak lanik gabe geratu dira.

Mikel Zabaleta ELAko ordezkariak gogoratzen duen moduan, langileen helburu nagusia lanpostuak mantentzea eta Zizurkilgo lantegia berriro irekitzea izan da. «Borroka luzearen ostean lehen helburua betetzea ez dugu lortu, baina borrokak irtenbide duinagoa ahalbidetu du». Enpresak 6,4 milioira igo zuen azkenean langileen artean banatzeko kalte ordaina, aurrez eskainia baino bost milioi gehiago, eta gehiengo handi batekin, langileek onartzea erabaki dute. Beraz, aurreakordioan adosturikoa betez gero, bertan behera geratuko lirateke epaitegietan hasitako auziak.

**Epaiketa atzeratzea**

Iragan uztailean hasi behar zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian 74 langileren kaleratzea aurreikusten zuen enplegu erregulazio espedientearen aurkako epaiketa. Enpresak, ordea, 2014 urteko martxora atzeratzea lortu zuen hainbat trikimailu erabiliz. Horren ostean, AEBetako zuzendaritzarekin jarri zen harremanetan langile batzordea, eta eurekin zuzenean bilera bat egitea zela egokiena adostu zuten. Abuztu bukaeran Madrilen bildu ziren zuzendaritzarekin bi egunez, eta enpresak azken eskaintza bat egingo zuela esan zien. «Administrazio Kontseiluari baimena eskatuko ziela ahalik eta diru gehien jartzeko mahai gainean esan ziguten», azaldu du Zabaletak. Azken kopuru horrekin joan ziren langileengana, eta bozketan parte hartu zuten 70 langileetatik 65ek onartu zuen.

> Lanpostuak mantentzea ez dugu lortu, baina irtenbide duinagoa ahalbidetu du borrokak»
> **MIKEL ZABALETA**
> ELA sindikatuko ordezkaria

Zabaletaren arabera, langileek eginiko borroka erabakiorra izan da kalte ordain horretara iristeko. «Presio handia burutu dugu, bai mobilizazioetan, bai epaitegietan, bai eta erakundeetan ere. Beraiei auzia atzeratzeak ere kalte handia egin zekiokeen, eta azkenean, kopuru horretaraino ordaintzeko prest zeudela adostu zuten». Bestalde, ELAko ordezkariak azaldu duenez, «langileek ezustean jakin bazuten ere, AEBetan egoitza duen multinazionalak aspaldidanik zuen berregituraketa plana martxan, eta deslokalizatzeko helburua. Eta hori argi ikusten ari da orain, Zizurkilgoa ezezik, beste hainbat ere ixten ari baitira».

Bestalde, Zabaletak langileak alde batetik «triste» daudela adierazi du, lanpostuak ez direlako mantendu. «Arrazoia langileek zuteela oso argi dugu, baina borroka konplikatua zen, eta epaiketetan gauza asko gertatu zitezkeen, eta gisa horretako multinazional batekin, are eta gehiago». Bestetik, poztasuna ere sentitzen dutela esan du, «borrokak emaitza eman duelako: langileentzat oso gogorra izan da, hainbeste denboran horrela borrokatzea, inolako bukaera jakinik gabe».

ELAko ordezkariak hilabete hauetan herritarrengandik jasotako babesa eskertu du. «Legedia injustu baten aurrean gaude, langileak beti galtzen ateratzeko arauak dira, eta horregatik saiatu gara erakundeek guri laguntzen desoreka gure alde jartzeko, baina udaletxeetatik lortu dugunetik haratago, ez dugu laguntza berezirik jaso», adierazi du.

## Kronologia

■ **Urtarrilak 21.** Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko beharginek enpresak 81 langiletik 75 kaleratu nahi zituztela jakin zuten.

■ **Urtarrilak 25.** Enpresak 81 lanpostuetatik 75 desagertzea aurreikusten zuen enplegu erregulazio espedientea aurkeztu zuen. Jarduerari eustea ez zela bideragarria adierazi zuen enpresak, eta papergintzaren sektoreko krisia, salmenten jaitsiera eta makineria berritzeko egin beharko lukeen inbertsioa jarri zituen argudio moduan. Langileek «benetako sakeoa» egon dela salatu zuten, «2010. urtetik Zizurkilgo lantegitik multinazionalera 5 milioi euro baino gehiago eraman dituztelako, talde barneko salmenta neurriak guztiz desorekatuak izan direlako, eta muga zorrotzak jarri dizkiotelako lantegiari, bai egin beharreko produktuetan eta bai herrialde askotako merkatuetan sarrera debekatuz». Hala ere, urtez urte irabaziak ematen jarraitu duela esan zuten.

■ **Urtarrilak 28.** Zizurkilgo lantegiko beharginek greba mugagabeari ekin zioten.

■ **Otsailak 1.** Huyck Wangner lantegiko langileen batzordea eta multinazionalaren zuzendaritza bildu ziren estreinakoz, enpresak Zizurkilgo lantegia ixteko asmoa azaldu zuenetik.

■ **Otsailak 2.** Ehunka herritarrek hartu zuten parte Tolosan, Huyck Wangner-eko langileek deitutako manifestazioan, Zizurkilgo langileei elkartasuna azalduz, eta egoera salatuz.




Otsaileko manifestazioa. A. IMAZ

■ **Otsailak 25.** Enplegu erregulazio espedientearen gainean negoziatzeko epea amaitu zen, eta bost bilera izan ostean, akordiorik ez zuten lortu. Multinazionalak ez zuela negoziatzeko «inongo borondaterik» agertu esan zuen langile batzordeak.

■ **Martxoak 2.** Ehunka lagun elkartu ziren Zizurkilgo lantegia ez ixteko eskatuz Tolosan egin zuten manifestazioan.

■ **Martxoak 6.** Enplegu erregulazio espedientea erretiratu zuen enpresak. Lantegia ez dela bideragarria argudiatuz, beste erregulazio prozesu bat martxan jartzeko asmoa agertu zuen multinazionalak, «langileekin akordioa lortu, eta aurreikusitako enplegu murrizketen eraginak ahalik eta gehien leuntzeko».

■ **Martxoak 25.** Huyck Wangner enpresak bigarren enplegu erregulazio espedientea aurkeztu zuen. Zizurkilgo lantegiko 74 langileren kaleratzea aurreikusten zuen, eta 22 egunetik 25 era igo zuten lan egindako urte bakoitzeko kalte ordaina. Langileek «planteamendu bera» jarri dutela mahai gainean adierazi zuten, eta greba mugagabearekin eta elkarretaratzeekin jarraitzen zutela berretsi zuten.

■ **Apirilak 11.** Langileen batzordea lan ikuskaritzarekin bildu zen, eta Batzar Orokorretan agerraldia egin zuten. Alderdi politiko guztiek elkartasuna eta babesa adierazi zieten.

■ **Apirilak 19.** Alemanian izan ziren Zizurkilgo langileak multinazionalaren eraikin nagusian, protestan. Ezin izan zuten zuzendaritzarekin bildu, baina bertako langileen babesa jaso zuten.

■ **Maiatzak 11.** 300 lagun inguruk elkartasuna adierazi zieten Zizurkilgo lantegiko beharginei, Tolosan eginiko manifestazioan.

■ **Uztailak 9.** Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian 74 langile kaleratzeko erregulazio dosierraren aurkako epaiketa hasi zen. Uztailaren 16ra atzeratu zen, enpresak zitazioak zuzen ez egotea argudiatu zuelako, eta gero, 2014ko martxora atzeratzea lortu zuen.



Alemaniatik itzultzean Zizurkilgo langileei harrera egin zieten. I.T.

■ **Apirilak 29.** Bigarren enplegu erregulazio espedientearen kontsulta epea amaituta, langileek kaleratze gutunak jaso zituzten. Ondorioz, langileek salaketa jarri zuten txostena baliogabetzea eskatuz.

■ **Irailak 5.** Enpresako zuzendaritzak proposaturiko kalte ordainen igoera onartu dute Zizurkilgo langileek. 1,2 milioi eurotik 6,4 milioi eurora igo dute.

TOLOSALDEKO hitza info

2013-09-06 Eguraldia

| Goiza | Arratsaldea | Tenperatura | Bihar | |
|---|---|---|---|---|
| | | 23º | GOIZA | LAINOTUTA |
| | | 16º | ARRATSALDEA | EURIA |
| | | | BEROENA | 19º |
| | | | HOTZENA | 15º |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM
**Lege Gordailua:** SS-0398-03
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz
**Egoitza:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95.
**Faxa:** 943 65 00 18
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa.
**Kudeatzailea:** Jon Mujika.
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
**Villabona-aiztondo:** 687 410 022. villabona-aiztondo @hitza.info
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea @hitza.info
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea @hitza.info
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea @hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK, Galtzaundi euskara taldea, eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile, Hitza-k Bai Euskarari

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agurrak



**Bihar Urrezko Ezteiak!**
**Carmen eta Javier.** Zorionak eta ondo pasa, zuen seme-alaba, biloba eta familia guztiaren partetik.



**Urte askoan!**
**Dolores Artola Artola (Lizartza).** Gaur 87 urte. Ze zortea gurea holako ama, amaginarreba eta amona ondoan izatea. Zorionak bihotz-bihotzez, seme-alaba, suhi-errain eta biloben partetik.



**Urte askoan!**
**Haizea Aiestaran Mendieta (Tolosa).** Gaur 2 urte! Zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak




## Agenda

### GAUR

**DEIALDIAK**

- **Ibarra.** Ibarrako Udalak kirol arloko diru laguntzak eskatzeko epea zabalik du, hilaren 15a bitarte. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Belabieta kiroldegira joanez 09:00etatik 13:00etara edo 15:00etatik 20:00etara. Edo 943 67 15 44 telefono zenbakira deituz.
- **Ikaztegieta.** Kirol ikastaroak antolatu nahi ditu udalak eta herritarrei irailaren 9a, astelehena, baino lehen udaletxean izena emateko deia egin die zer egin nahiko luketen zehaztuz. Ondoren, taldeak osatzea posible ote den aztertuko da.
- **Tolosa.** Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolan oraindik posible da izena ematea. Horretarako, 943 65 15 93 telefono zenbakira deitu, 10:00etatik 13:00ak bitarte. Astelehenean hasiko dira klaseekin.
- **Tolosa.** Hilaren 16an sorospen eta sorosle ikastaroa izango da Tolosan, DYAk antolatuta. Hiru asteko iraupena izango du, eta matrikula 100 euro ordaindu beharko da. Saioak 19:00etatik 21:00etara izango dira. Izena emateko, 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar da.
- **Tolosa.** Tolosaldea Garatzeneko enplegu zentroak langabetuentzako hiru ikastaro antolatu ditu: Ikastaroei buruzko informazioa aurkitzen ikasi; lana bilatzeko teknikak eta Curriculum Vitaeak bidaltzeko posta elektronikoa erabiltzen ikastea izango dira. Lehena irailaren 10 eta 12an izango da; bigarrena hilaren 17 eta 19an, eta azkena, hilaren 24 eta 26an. Izena emateko 943 65 45 01 telefono zenbakira deitu, edo *lan@tolosaldea.net* helbide elektronikora idatzi daiteke.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant, R. Zabalarretako loralegiak, 1 Telefonoa: 943 67 38 49.

### BIHAR, HILAK 7

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

### ETZI, HILAK 8

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.

### ETZIDAMU, HILAK 9

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.

